

Marten inoiz hautemandako gandorrik garaiena aztertu du EHUko Planeta Zientzien Taldeak

Astronomoek oraindik ez dute azalpenik fenomenoarentzat


Duela ia hiru urte, 2012ko martxoan, astronomozaleek Marteren diskoaren ertzetik gorantz zihuan gandor baten irudia jaso zuten, munduko hainbat lekutatik. Ordura arte ikusitako handiena bazen ere, garai hartan behaketa hura nahiko isilean geratu zen. Hala ere, EHUko Planeta Zientzien Taldeko ikertzaileen jakin-mina piztu zuen. Orain, ikerketa-taldeak gandorrraren [azterketaren emaitzak plazaratu ditu](#), *Nature* aldizkariaren bidez. Airtutu dutenez, oraindik ez dute topatu asebeteko dituen azalpenik; beraz, ziur daude fenomenoak zeresana eman-go duela.

Agustín Sánchez Lavega ikerketa-taldeko buruaren arabera, “duela hiru urte behatutako fenomeno oso ezohikoa da. Astronomiazale aurreratuek jaso zituzten irudiak, eta zientzia-komunitateak oro har arreta handirik jarri ez bazien ere, gu ohartu ginen fenomeno berezia zela. Hortaz, sakonean aztertzea erabaki genuen”.

Irudiak analizatuta, “ezohikoa” zela konturatu ziren: “Batetik, orain arte ikusitako den gandorrik garaiena delako, Marteren gainazaletik 200-250 kilometrorara zegoela kalkulatu baitugu”. Zenbaitetan, 100 kilometroko garaieran dauden hodeiak ikusi izan dituzte, baina inoiz ez hain goian. “Hori azaltzeko bi hipotesi planteatu ditugu, baina, egiaz, ez bata ez besteak ez gaitu asetzen”.



Agustín Sánchez Lavega. ARG.: ARGAZKI PRESS.



Marten hautemandako gandorra. ARG.: WAYNE JAESCHKER, DONALD PARKER ETA HUBBLE TELESKOPIOA.

Sánchez Lavegaren esanean, ez dakite zer maiztasunekin gertatzen den fenomeno hori. “Kontuan izan behar da han dabilzan ibilgailu eta ontziak ez diotela linboari begiratzen, ez diote plantaren ertzari erreparatzen, baizik eta zoruari eta bestelako xehetasunei. Horregatik, ditugun irudi guztiak astronomiazaleek Lurretik jasotakoak dira. Eta astronomiazale deitzen diet amateurrak direlako; bestela, profesionalak bezain ondo egiten dute lan. Nolanahi ere, haiek dira linboari erreparatzen diotenak, eta haiei esker izan dugu fenomenoaren berri”.

Azaldu duenez, gandorra egunsentian baino ez zen agertzen, Terra Cimmeria eskualdean (hego hemisferioko latitude ertainean); “gero, badirudi nahiko azkar desegiten zela”. Hamar egunez jarraian azaldu ondoren, desagertu ezin zen, eta handik egun batzuetara berriro agertu zen, baina ez aurreko eguntean bezain goian”. Hain zuzen, ezohiko garaiera hori, 200 kilometro ingurukoa, lehen aldiko bi egunetan baino ez zuten neurtu, martxoaren 20an eta 21ean. Edozein modutara, fenomeno oso nabarmena izan zen, garaieragatik eta hedapenarengatik.

Bi hipotesi

“Fenomeno azaltzeko, bi egoera aztertu ditugu. Batetik, baliteke hodei bat izatea, urezko edo karbono dioxidozko kristal-txoz osatua. Hori sortzeko, tenperaturak ikaragarriko behar bada izan beharko luke goi atmosferan, eta, ziur aski, kondentsazio-nukleo bat ere beharko luke”, esplikatu du Sánchez Lavega.

Beste aukera Lurreko auroren antzeko fenomeno bat litzateke. Alabaina, hipotesi hori oso ahula dela onartu du Sánchez. “Nire ustez, baliteke Lurraren Poloetan sortzen diren hodei noktiluzenteen antzeko fenomeno bat izatea. Hodei horiek oso leku hotzetan sortzen dira, eta beste lekutan sortzen diren hodei garaiena (ziurruak) baino askoz ere gorago agertzen dira. Ez hodeien hipotesiak eta are gutxiago aurorarenak, ez gaituzte asebetetzen, baina topatu ditugun azalpen bakarrak dira”.

Sánchez Lavegaren ustez, fenomenoak agerian utzi du merezi duela Marteren linboa aztertzea. “Ea hurrengo misioetan eta behaketetan badugun datu gehiago jasotzeko aukera eta hobeto ezagutzen dugun fenomeno”.